



Zer da MiFID?

MiFID finantza-tresnei eta merkatuei buruzko europar zuzentaraua da. Estatuan, transposizioz jaso zuen 47/22007 Legeak, abenduaren 19koak -horren bidez aldatu zen Balore Merkatuari buruzko 24/1988 Legea-, eta garapena eman zion 217/2008 Errege Dekretuak, otsailaren 15ekoak.

2007ko azaroaren 1ean jarri zen indarrean.

ZEIN DIRA BERE HELBURU NAGUSIAK?

- 📁 Inbertitzaileei **BABES HANDIAGOA** ematea da haren helburu nagusia.
- 📁 Europar Batasunean esparru arautzaile erkide bat sortzea, finantza-zerbitzuen jardura bateratzeko, gardentasuna errazteko eta finantza-merkatuen modernizazioa, lehiakortasuna eta irisgarritasuna bultzatzeko.

Nola ematen dizkio babesa eta onura MiFIDek inbertitzaileari?

MiFIDek hainbat jokaera-arau ezarri dizkie finantza-erakundeei, bezeroekin erabili beharrekoak (inbertsioaren aurretik, bitartean eta ondoren), bezeroaren sailkapenaren, emandako zerbitzuaren eta produktu motaren arabera.



INBERTSIOAREN AURRETIK

BEZEROEN SAILKAPENA

Indarrean dagoen araudiaren arabera, entitateak honako kategoria hauetan sailkatzen ditu bezeroak, babesik txikienetik handienara ordenaturik:

- Babes-maila
- **KONTRAKO ALDERDI AUKERAGARRIA**
Informazio eta babes maila: **OINARRIZKOA** Funtsean, erakunde-inbertitzaile kualifikatuak: bankuak, inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateak...
 - o **PROFESIONALA**
Informazio eta babes maila: **ERTAINA** Arauan jasotako irizpideak betetzen dituzten enpresa handiak.
 - + **TXIKIZKARIA**
Informazio eta babes maila: **ERABATEKOA** Bezero partikularrak dira bereziki, bai pertsona fisikoak bai juridikoak (batez ere ETEak).

MiFIDek kategoria-aldaketak arautzen ditu, bezeroak hala eskatzen badu eta entitateak onartzen badu, betiere Arauak ezarritako irizpideak betetzen badira. Kontuan hartu behar da bezeroaren sailkapena aldatzen bada finantzen inguruko ezagutza edo esperientzia handiagoa suposatzen zaion kategoria batera, bezero horri txikitu egingo zaiola inbertsio-zerbitzuetako babesa.



INBERTSIO ZERBITZUAK

MiFIDek eragina du bereziki honako inbertsio-zerbitzu hauetan:

- ✓ **Bezeroen finantza-tresna baten edo gehiagoren inguruko aginduak jaso eta transmitzea.**
- ✓ **Bezeroen aginduak betetzea.**
- ✓ **Inbertsioen inguruko aholkularitza.**
- ✓ **Finantza-tresnen administrazioa eta zaintza.**
- ✓ **Beste batzuk:** zorroak diskrezioz kudeatzea; finantza-tresnak merkaturatzea; eta inbertsio-txostenak, finantza-azterketak edo finantza-tresnen inguruko eragiketekin lotutako bestelako gomendio orokorrak.










→ INBERTSIOAREN **AURRETIK**

PRODUKTUEN SAILKAPENA

ZER PRODUKTUTAN APLIKATZEN DA?

Honako produktu hauetan aplikatzen da:

-  **Errenta aldakorra.**
-  **Errenta finkoa.**
-  **Moneta-merkatuko tresnak.**
-  **Inbertsio kolektiboko erakundeak.**
-  **Merkatu antolatuetako deribatuak eta OTC** (merkatu antolatuetan kotizatzen ez diren deribatuak).
-  **Kapitala arriskuan duten produktu egituratuak edo erreferenziadunak.**
-  **Bestelako balore eta finantza-aktibo hibridoak.**

Eta honako produktu hauek baztertuta daude:

- Banku-pasibo tradizionala: kontuak, EFEak...
- Kredituak, maileguak, abalak eta bestelako aktibo-eragiketak.
- Ordainbideak.
- Aseguruak
- Pentsio-planak eta BGAEak.

KOMENIGARRITASUNAREN EDO EGOKITASUNAREN EBALUAZIOA

LABORAL Kutxan test bat egin behar da MiFID finantza-tresna guztietarako:

KOMENIGARRITASUN TESTA

MIFID produktu bat kontratatu aurretik, LABORAL Kutxak KOMENIGARRITASUN TESTAREN bidez ebaluatuko du bezeroak zer ezagutza eta esperientzia dituen produktuekiko, eta horren arabera ohartaraziko du. Bezeroak kontratatuko duen eragiketaren arriskuak ulertu eta onartzen dituela bermatzea da testaren helburua.

EGOKITASUN TESTA

LABORAL Kutxak inbertsioei buruzko aholkularitza-zerbitzua ematen duenean (Banka Pertsonaleko zerbitzuaren bidez edo eragiketa jakin baterako unean uneko aholkularitza emanez), gomendio pertsonalizatuak ematen dizkio bezeroari, inbertitzailearentzat egokitzen jotzen dituenak, honako hauek kontuan hartuz: ezaugarri pertsonalak, inbertsio-helburuak, inbertsioen inguruko ezagutza eta esperientzia eta finantza-egoera. Horiek guztiak jaso eta ebaluatzeko, EGOKITASUN TESTA egiten dio alde z aurretik.

KONTRATU AURREKO INFORMAZIOA

Inbertsioa egin aurretik, LABORAL Kutxak informazio argi eta gardena emango dio bezeroari hauei buruz:

- Entitatea eta bere zerbitzuak.
- Produktuak: beren ezaugarri eta arriskuekin.
- Publizitatea.
- Kostuak eta gastuak.
- Kontratuen xehetasunak.

INBERTSIOAN **ZEHAR ETA ONDOREN**

- Bezeroaren agindua berehala jaso eta transmititzea, inbertitzailearentzako baldintzarik onenetan.
- Agindua bete izanaren egiaztapena.
- Bezeroari aldian behin bere inbertsioei buruzko informazioa bidaltzea.

ALDI ORO

- Interes-gatazkak edo pizgarrien politikak direla-eta bezeroa kaltetzea saihestuz.
- Bezeroen inbertsioak administratuz eta zainduz.
- Bezeroari berme-funtsei buruzko informazioa emanez, kaudimengabezia-kasuetan.
- Bezeroen edozein galderari eta/edo erreklamaziori erantzunez.

INFORMAZIO GEHIAGO



Eskatu informazio gehiago **LABORAL Kutxako** bulegoetan, www.laboralkutxa.eus webgunean edo telefono hauetan:

Partikularrak: 901 300 333 | Enpresak: 902 333 353
A-O: 08:00-22:00 / L: 08:00-15:00. | A-O: 08:00-18:00.

Caja Laboral Popular • Jose M. Arizmendiarieta pasealekua, zkg. • Posta-kutxa HF: 2 : 20500 – Arrasate • contactacon@laboralkutxa.com

Espainiako Bankuaren Kreditu Erakundearen Erregistroan 3035 zenbakiarekin dago inskribatuta. IFK: F- 75076935